



ETAPA AMAIERAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

PROBA PILOTUA, 2019



LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

Pilotajearen garrantzia

Euskal Hezkuntza Sistemak, ISEI-IVEIren bidez, azken urteetan ebaluazio mota asko egin ditu hezkuntza-prozesuen kalitatea hobetzeko asmoz. Beti aurrez balidatutako eta homologatutako prozeduren bidez, etapa erdiko nahiz etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoekin gertatzen den bezala.

Kasu honetan, eta 2020ko etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoetako probak egin ahal izateko, Hezkuntza Sailak, Hezkuntza Sailburuordetzaren bidez, ebaluazio honen proba pilotuaren prozesu bat martxan jartzea erabaki du funts publikoak dituzten eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetako ikasleak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien artean aukeratutako lagin batean.

Sailaren hiru zerbitzuek, hau da, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko Zerbitzuak (Berritzeguneak) elkarrekin garatutako ebaluazioa da.

ISEI-IVEI izango da 2018-19 ikasturtean ebaluazio pilotuaren aplikazioa diseinatzeaz arduratuko den erakundea. Kalitate tekniko eta metodologikoari dagokionez berme gorenak emango dituen ebaluazio-tresna eta proba multzoa eskaini ahal izatea da helburua. Beraz, ebaluazio pilotu honen helburua da etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoaren probetan egongo diren itemen baliozkotasuna egiaztatzea. Hau da, proba pilotu honetan lortuko diren emaitzekin aukeratu ahal izango dira 2020ko behin betiko proban sartuko lirakeen itemak. Horixe da ebaluazio pilotu honen **helburu bakarra**.

Beraz, ebaluazio mota honetan ez dago ikasleen emaitzarik, ezta ikastetxeko txostenik ere.

Ebaluazioaren ezaugarriak

Ebaluazio hau egiteko, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan bi talde dituzten A, B eta D ereduko 40 ikastetxeko **lagina** aukeratu da (20 publiko eta 20 itunpeko), etapa bakoitzeko 1800 ikasle inguruko lagin esperimentalak. Ikasle kopuru hori nahikotzat hartzen da item bakoitzeko beharrezko erantzun kopurua izateko.

Kanpo-ebaluazioa da eta aplikazio-lanak egiteko espresuki kontratatutako langileek egingo dute. Ebaluazio estandarizatua da, gainera, hau da, ikastetxe eta talde guztietan prozedura eta irizpide berberekin egingo da.

Honako konpetentzia hauek pilotatu nahi dira:

1. **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:** Entzumena eta Irakurmena.
2. **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:** Entzumena eta Irakurmena.
3. **Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:** Entzumena eta Irakurmena.
4. **Zientzia-kulturarako konpetentzia.**
5. **Matematikarako konpetentzia.**
6. **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.**

A eta B ereduetako ikasleek matematikako eta zientzietako probak gaztelaniaz egingo dituzte, eta D ereduko ikasle gehienek probak euskaraz egingo dituzte, nahiz eta koadernoren batean ikasleren batek galderaren batzuk gaztelaniaz izan ditzakeen.

Talde bakoitzean ikasle guztiek konpetentzia berberak egingo dituzte eta hiru proba egingo dituzte, pilotatzen diren sei konpetentzietatik. Lehen Hezkuntzan:

- 1. taldea: **EUSKARA + MATEMATIKA + IKASTEN IKASTEIA**
- 2. taldea: **GAZTELANIA + ZIENTZIAK + INGELESA**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan konpetentzien banaketa antzekoa izaten saiatuko gara, baina aldatu egin daiteke 4. mailan ikaslea egiten ari den konpetentzia zientifikoko ikasgaiaren arabera.

Proben ezaugarriak

Proba pilotuak egun bateko iraupena izango du eta hiru proba aplikatuko dira goizez egun bakar horretan. Proba bakoitzaren **iraupena 40** minutukoa da Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta 50 minutukoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan. Hala, guztira, hiru orduko iraupena izango du probak gutxi gorabehera, bigarren probaren eta hurrengoaren artean 20 minutuko atsedendiarekin.

Probak matrizialak izango dira eta sei konpetentzietako bakoitzeko bi koaderno pilotatuko dira. Koaderno bakoitzean item komunak eta item ezberdinak egongo dira askotariko galderekin: gehienak erantzun itxikoak izango dira, aukera anitzeko formatuarekin, baina izango dira erdiosatutako erantzuna duten galderak ere, eta ikasleari sekuentziazio bat ordenatzeko edo taula bat osatzeko eskatuko zaio horietan, adibidez. Ikasleek erantzun laburra eman beharko duten galdera ireki batzuk ere izango dira.

Proben aplikazioa **ordenagailu** bidez izango da: funtsean onlineko aplikazioa izango da, ikastetxe bakoitzaren azpiegitura informatikoa aprobetxatzen saiatuko gara, baina ikastetxe batzuetan offline izango da, pendrive-en bidez.